

## Langabezia beherantz

*Deia*, 1983-06-25.

Berri onak ere eratu behar ditugu!

Aurtengo lehen hiru hilabetetan, *Euskadin* 10.980 geratu gutxiago ditugu: 1982garrengo amaieran, 187.800 zeuden eta 1983garrengo martxoaren azkenean 176.82? Gaur mundu guztia gaitz ilun eta makur honen ondorioak nozitzen ari den une honetan, lorpen hau polita da, benetan aipagarria.

Ez dira guhauk emandako zifrak, kanpoko Instituto Nacional de Estadistikak baizik.

Zorionak lana aurkitu dutenentzat, eta oraindik milaka asko lan gabe geratzen direnez, horientzat ahal den laguntzarik itxaropentsuena; tristeia baita batzu udako oporretan lan arteko atsedeen pozgarria hartzen ari diren une berean, beste batzu langabeziaz mundu osoan zabaltzen diren estadistikak ez diote gure herriko giz-emakume eta hurrei frustrazio handi honen larritasuna arinduko.

Hala ere, ez gara aurrerapen pozgarria ospatu gabe geratuko.

Aurrera ere begiratu behar baita.

Eta aurrerabidea zera dugu. Ekimen eta inbertsio berrien plan konkretuak: Jesus Lobo jaunak, Euskal Jaurlaritzako -industriarako estrategia- sailaren ardura duenak esan duenez, inbertsio handien arloan laguntzak eman dira, eta 7.920 miloi pezeta, hain beharrezkoak diren berregiturak egiteko; ari da, bestalde, Euskal Gobernuak teknolojiari bultzatzeko laguntzak ematen, eta I + D deritzan mailan 42 enpresei 1.285 miloi zuzenduko zaizkie. Badira arlo honetan beste laguntza moetak ere, batez ere mikroelektronika industriari erantzuteko eratu den IMI egitaraua.

Eta langabeziaren etorkizunari konkretuki begira, badirudi gaur *Euskadin* ia ehundik hogeita dena, 1990erako ehundikan zortziarte jaitsiko dela!

IKEI-ko Juan Luis Llorens eta Iñigo Garayalde diotenez, horiek izango dira *aldaketa hau lortzeko* berregituratze nagusiak ukituko duten sailak: elektra-makineria (ehundikan 8,6), plastikozko produktuak (ehundikan 7,3), kimikazko eraldatuak (ehuneko 6,8), oinarritzko kimika (ehuneko 5,0), kautxozko produktuak (ehunetikan 4,1), metalezko eraldatuak (ehundikan 3,3), metalezko oinarritzkoak (ehundikan 2,3), elikadura (ehundikan 2,0) eta untzigintza (ehundikan 0,2).

Gaurkoaz gainera, aurrera begira gaude.

Hauxe da Garaikoetxea lehendakariak azpimarratu duen deia: "Lortutakoak bihotz eragin berria sortu behar digu Euskadik beharmerezi duen ekonomiaren osasuna aurkitzeko: ekonomi ireki eta aurrerakoa, munduko merkatu guztietan lehiatzeko gai izango den etorkizunerako ekonomia moeta".